



ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA JAKITEAR

Parte hartzeko epea amaituta, etzi jakingo da zein diren IX. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi finalistak >4-5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-05-01

VIIURTEA 1.690.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ainhoa Larrea kultur teknikaria eta Marian Lazkano alkatea, egitaraua aurkezten. I. GARCIA

OTEIZA ARDATZ NAGUSIA 'MAIATZA SALTSAN' EGITARAUAN

ZIZURKIL Egitarauaren baitan, 'Oteiza, bizirako proiektua' erakusketa jarriko dute; ekitaldi ugari izango dira, tartean, Andatza Eguna, etzi 3

Krisiaren inguruko mahai-ingurua eragile ezberdinekin

TOLOSA Sanblaspiko Gazte Asanbladak antolatuta, Euskal Herria Sozialista, ELA eta LABeko ordezkariak izan ziren Kultur Etxean 6



Herenegungo une bat. R. CALVO



Goizean manifestazioa egin zuten herritik barna. A. IMAZ

Grebara irten dira Leitzako institutuko hainbat ikasle,

La Moutte banda eta Isidro Larrañaga elkarrekin, bihar

TOLOSA Kalejira egingo dute Alde Zaharrear, eta kontzertua eskainiko dute Plaza Berrian 2



TOLOSALDEA,
LASKORAIN IKASTOLA,
ZEURE AUKERA



• Kalitatezko heziketa euskalduna.

• Tolosaldeko gazteen Bigarren Hezikuntzarako ikastola.

• Unibertsitateko zein Lanbide Heziketarako bide guztiak irekiko dizkigun ikastola.

Batxilergoko eskaintza zabala duelako:

✓ Giza eta Gizarte Zientziak

✓ Zientziak eta teknologia



Izena emateko epea: Maiatzaren 4tik 8ra bitartean
Ikastetxeko idazkaritzan, Usabal Auzoa 26

Ordutegia: 9:00 - 13:00 eta 15:00 - 18:00

Ate irekiak: maiatzak 4, 18:00etan Usabalen

Argibide gehiago: Tel.: 943 67 44 28 edo www.laskorainikastola.net

Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Ibarrako udala, euskara eta mozioak

Udal agintarien jarduera salatu nahiko nuke. Udalbatzak 09:00etan ipintzen dituzte inor ez azaltzeko. Gaztelera hutsean izaten dira eta herritarrok hitza hartzen dugunean, gehienek ez dute ulertzen itzulpena bideratzen dien tresna matxuraturata dagoelako.

Mozio herritarrak ez dituzte tratatzen, Madrildik inposatutako apartheid politikan urrats propioak emanez. Chelo Romeo alkatesaren hitzetan: «Total, mozioek ez dute ezertarako balio eta». Udaltexea feudalismo garaiko gotorleku bihurtu dute. Nahikoa da!

Jon.

Urkizukoak Lezaungo bodegetan izan gara

Urkizuko bizilagunak igandea 19an (duela dagoeneko biaste) Lezaungo bodegetan izan ginene. Joan ginen 15 pertsonen oso ondo pasa genuen, berriro joateko asmoz!

Urkizuko bizilagunak.

'Txiliku' Laskorainen

Aurreko astean Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zela eta, aste honetan Jesus Mari Olaizola *Txiliku* idazle zarauztarraren bisita izan zuten Laskorain Ikastolako 6. mailako ikasleek, idazleak eskolan programaren barruan. Idazlea ikastolara etorri aurretik, 6. mailako ikasle guztiak *Txiliku*-ren *Agurre jakagorria* liburua irakurri zuten eta idazleari egiteko galderak prestatu zituzten. Berarekin egindako solasaldian, prestatutako galderak rantzuteaz gain, liburu bat idaztearen eta argitaratzearen prozesu osoa azaldu zuten.

Laskorain Ikastola.

**Irteera eta itzulera operazioa?**

Egun berezia da maiatzaren 1a, ez aurtengoan zubi egiteko aukera ematen duelako, asko gogoratzen ez badira ere Langilearen Eguna

delako baizik, gure eguna, hain zuzen ere.

Komunikabideetan aurreko egunetan ez dira gehiegi gogoratu, zubiaz bai, irteera eta itzulera operazioa martxan jarriko dutelako, baina badirudi Langilearen Nazioarteko Egunaren benetako izaeraz ahaztuta gaudela, geroz eta gehiago gainera...

Horregatik sindikatu desberdinek Maitzaren 1erako antolatutuzten ekitaldi desberdinetan parte hartzeko deia luzatu nahi dut nik, batez ere, bizitzen ari garen egoeraren aurrean biltzeko modua ere badelako. Maiatzaren 21eko greba orokorrean kalera ateratzeko deia ere egin nahi dut.

Edurne.



La Mouette bandak Tolosa bisitatuko du akordeoi orkestrarekin elkartrukean bihar

Tolosa » 11:30ean kalejiran ibiliko dira Alde Zaharrean; gero, Plaza Berrian Isidro Larrañagakoen ondoren kontzertua eskainiko dute.

NEREA URBIZU

Bihar, Tolosako Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak gonbidatuta, Landetako (Frantzia) La Mouette banda izango da. Hauek bihar 11:30ean kalejiran ariko dira Tolosako Alde Zaharrean barna eta 12:00etan, Tolosako akordeoi orkestrak jo ondoren, euren emanaldia eskainiko dute, Plaza Berrian.

Isitxo Larrañaga akordeoi orkestrako zuzendariak azken finean kontzertuak kultur mailan gero eta gutxiago egiten dira. Garai batean, orohar udaletxeek lagundu egiten zuten, batera eta bestera joanez. Gaur egun horiez da ematen, edo lehiaketa baterako prestatu egiten zara kanpora joanez (hori ezin da beti egin), edo lokalean sartuta entsagatzen gelditzen zara».

Azken finean, erakunde publikoek kontratatutako kontzertuak gutxi tu egin dira.



La Mouette banda Frantziako Landetako da; kalejiran ariko dira lehenik, Tolosako Alde Zaharrean. HITZA

Egoera honen aurrean, orkestrari bezalako taldeei mugitzea egokitu behar izaten zaie: gastu guztiak bere gain hartu, lehen egiten zituzten lanei gehituta (antolakuntza, harremanak, entseguak)...

Elkartruke hau egin dute aurretik eta frantziarrak dira lehenak Tolosabizitatzen. Gaur arratsaldean iritsiko dira eta Larrañagen egongo dira alokatuta. Turismoa egiteko aukera izango dute, noski, eta akordeoi-jotzaileekin ibiliko dira

gehienbat. Bihar eskainiko dute emanaldia: ez dira akordeoi-jotzaileak, banda bat baizik. Gazteak dira, 13 urte ingurutik hasita. Lehenik, 12:00etan hasita tolosarrek joko dute, hiru obra eskainiz. Ondoren La Mousetteren txanda izango da.

Argi dago, gazte hauek Tolosaldean egoteko dirua behar dela; akordeoi orkestrak Udalaren eskutik diru laguntza espero du, eskaera behintzat, eginda dago.

«25 laguneko familia bat»

Isidro Larrañaga akordeoi orkestrako kideek gogotsu entsagatzen dute, astean behin, ostiraletan. Une honetan 25 lagunek osatzen dute orkestra. «Horrelako ekitaldiek asko motibatzen dute taldea, aurrera jarraitzeko gogo».

Bestela, datorren emanaldia sanjoanetan izango dute. Halere, begiak 2010eko Pragako lehiaketan dituzte ere, 2007an bezala saria lortzeko aukera ahaztu gabe.

K Kirol jarduera**Gaur, ostirala****Areto futbol**

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etan, bigarren mailan: Laskorain-2king.

■ Berazubín, 11:30ean Gorengoen maila: Tolosa C.F. - Trintxerpe.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian 09:45ean emakumezkoen senior 11: Tolosa CF-Añorga.

■ 11:15ean infantilen ohorezko mailan: Tolosa CF-Touring.

Bihar, larunbata**Saskibaloia**

■ Eskolapioetan, 18:00etan 1. mailan, Bera Bera Ibiza - Bidegintza.

Areto futbol

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etan jubentzen mailan: Laskorain-Eskolapioak.

■ Usabalgo beheko kantxan 16:00etan, lehen mailan: Tolargi-Azpeitia.

■ Uzturpen, Tolosakup Txapelketaren norgehiagokak 15:30etik 19:40era bitartean. Guztira 6 partida.

Etzi, igandea**Futbola**

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, kadeteen Euskadiko kopa: Tolosa CF-Durango.

Areto futbol

■ Uzturpen, Tolosakup Txapelketako partidak, 15:30etik 19:40era bitartean. Guztira sei partida.

Laburrak**Urrezko Aizkolarien txapelketan gazteenak**

AIZKORA » Gaur, Urrezko Aizkolarien txapelketaren baitan, Estibalitzen (Araba) 12:30ean hasita, 23 urte azpikoetan, besteen artean, Alkizalete ariko da: Jokin Alkizalete asteasuarra eta Jon Rodriguez aurrez aurre, hain zuzen ere. Bihar, berriz, Urduñan 19:00etan Ander Erasun eta Ruben Saralegi leitzarra ariko dira 19 urte azpikoetan. Etzi, 18:30ean hasita, 19 urte azpikoetan ere Arkaitz Olano leitzarra ariko da, kasu honetan Oihan Larretxearen aurka lehiatuz. Joan den astean, Leitzaan aritu ziren.

Manex Castro presoa Valentziara eraman dute

VILLABONA » Manex Castro preso bilabonatarra Valentziako espetxera eraman dute Soto del Realetik (Madril). Joan-etorria luzatu egin da honenbestez (1.200 kilometro inguru dira orain). Honakoa da bere helbidea: Centro penitenciario de Valencia I. Ctra. N-340, km. 225, 46.220 Picassent (Valencia). Bestalde, Mikel Garmendia Centro penitenciario de Herrera de la Mancha dago (Ctra. de Argamasilla, s/n; 13200 Herrera de la Mancha - Ciudad Real).

Oteiza izango da 'Maiatza Saltsan' egitarauko ardatza

Zizurkil » Atxulondon 'Oteiza, bizitzarako proiektua' erakusketa jarriko dute; etzi Andatza Eguna ospatuko dute.

IMANOL GARCIA

Marian Lazkano Zizurkilgo alkatetik eta Ainhoa Larrea kultur teknikariak *Maiatza Saltsan* kultur egitaraua aurkeztu dute. *Oteiza, bizitzarako proiektua* erakusketa izango da ekitaldien ardatza. Beste hainbat ekitaldi izango dira ere, besteak beste: Andatza Eguna, San Isidro Eguna, Zizurkilgo XI. Biatzoia, Hernandorena Ipuin Lehiaketaren liburuaren aurkezpena eta lehenengo Senidetze Eguna, Aiztondo bailara eta Segundo Montes komunitatearen artekoa.

Oteizari buruzko erakusketaren inaugurazioa maiatzaren 7an izango da, osteguna, 19:30ean. Atxulondo kultur etxean maiatzaren 26ra arte izango da ikusgai. Ainhoa Larreak adierazi duenez, «pribilegioa da horrelako erakusketa bat izatea Zizurkilen». Astelehenetik ostiralera 11:30etik



Marian Lazkano eta Ainhoa Larrea egitaraua aurkezten. I. GARCIA

12:30era eta 16:00etatik 20:00etara ikusi daiteke, larunbatetan 11:00etatik 14:00etara eta igandetan 12:00etatik 14:00etara. Bisita gidatuak ere antolatu ditu Udalak herritarrentzat. Horrela, maiatzaren 9an, 11:30ean, gaztelerez izango da, eta maiatzaren 16an, 11:30ean ere, euskaraz.

Erakusketa inauguratu aurretik beste ekitaldi batzuk ere izango dira. Horrela, etzi Andatza Eguna ospatuko dute zizurkilarrak eta usurbildarrak. Ohi bezala, ha-

maiketakoak, herri kirolak eta jokoak haur eta helduentzat eta bazkaria (norberak berea) izango dira. Goizean zehar trikitilariak eta bertsolariak ariko dira.

Bestalde, maiatzaren 4ean, astelehena, Katxalin elkarteak hitzaldia emango du bularreko minbi-ziari buruz, 17:30ean Atxulondon. Hurrengo egunean, maiatzaren 5ean, herriko haur bertsolari eta dantzariaren emanaldia izango da, 18:00etan Atxulondo kultur etxean.



'Lehiaketa', jardunaldiak amaitzeko

VILLABONA » Zizurkil eta Villabonako udalek antolatutako *Antzokian gauden* antzerki jardunaldien azken emanaldia izan zen atzo. Villabonako Malkar plazan Trapu Zaharrak taldeak *Lehiaketa* obra eman zuen. i.g.



Santa Kruz jaiak asteburuan

ERREDAKZIOA

Asteasuko Udaleko Festa Batzordea eta Elizmendi auzokideen artean prestatu dituzte aurtengo Santa Kruz jaiak. Bihar eta etzi iraungo dute jaiak eta ekitaldiak urterokoak izango dira.

Erromeriek leku berezia izango dute eta Kupela taldea eta Laja eta Landakanda trikitilariak ariko dira jaiak girotzen. Haurrek protagonismo handia izango dute eta berairantzako ekitaldi ugari antolatu dituzte. Simonek ere ez du aurtengo hutsik egingo festak iragartzen.

» EGITARAUA

Maiatzak 2, bihar

- **11:00.** Duatloi proba, mendiko txirindularitza eta krosa.
- **15:30.** Mus txapelketa herrikoia.
- **16:30.** Txupinazoa eta Simonen jaitziera. Ondoren, haurrentzako jolasak.
- **19:00.** Txan Magoaren emanaldia. Ondoren buruhandiak.
- **20:30.** Herri afaria Erretore Etxean.
- **23:00.** Erromeria Kupela taldearekin. Goizaldera txokolatada.

Maiatzak 3, etzi

- **11:30.** Meza Santa Kruz ermitan. Ondoren hamaitaketa eta toka txapelketa, Laja eta Landakanda trikitilariekin.
- **17:30.** Herri kirolak. Iparraldeko jokoak Lapazaran eta Tubirekin eta Ostolatza harrijasotzailea. Ondoren sokamuturra zezen txikiak eta poneyekin. Gero buruhandiak. Ondoren Laja eta Landakanda.
- **21:00.** Simonen igoera. Ondoren Laja eta Landakanda.

Sukaldaritza ikastaroa Amarotzen

TOLOSA » Amarozko Auzo Elkarteak antolatuta, San Blas elkartearen ezinbesteko laguntzarekin, bukatu berri da sukaldaritza ikastaroa. Ikastaroa Iñaki Etxeberria Zuloaga Txiki jatetxeko sukaldari buru eta ardura-dunak eman du, bere sukaldari eta laguntzaile Mikel Morenorenkin batera. Ikastaroan parte hartu dutenen esanetan, klaseak «guztiz interesgarriak izan dira». Izan ere, plater errazak eta, bide batez, berriak atondu dituzte. Antolatzaleek eskerrak ematen dizkie Iñaki Etxeberriari eta Mikel Morenori «erakutsi duten prestutasunagatik». HITZA

Hiru jardunaldi gelditzen zaizkie Lakunzakoei

ERREDAKZIOA

Villabonako Transportes Lakunza areto futboleko taldeak partida berran garrantzitsua du, bihar, 18:00etan, Olaederra kiroldegian. Ilarabarri taldea izango da aurkaria. Biharkoarekin kontatuta, hiru jardunaldi bakarrik gelditzen dira liga amaitzeko.

Aurreko asteburuan galdu eta gero, sailkapeneko lehenengo sei taldeen artean hiru puntuko alde dago bakarrik. Horregatik, Lakunzakoei jarraitzaileen animoak estekatzen dituzte mailaz igotzeko.

Izan ere, aurreko asteburuan igoera ziurtatu nahi zuten Lakunzakoei, baina azkenean Suisaco taldearen aurka galdu egin zuten. Hasiarik hasi ziren Suisacoak nagusitzen. Horrela, 10 minutu falta zirela Lakunzakoei lehenengo gola jaso zuten. Billabonatarren

jarrera denboraldiko txarrena izaten ari zen, baina aukerak sortzen ari zen eta ondoren alferri galtzen. 1-0eko emaitzarekin iritsi ziren atsedendira.

Tarte horretan, Lakunzakoen entrenatzaileak garbi zeukan zer egin behar zen: jarrera onarekin aurre egitea eta defentsan sendo egotea. Baina orainago ez zuen funtzionatu, bigarren zatieren hasieran bigarren gola jasotzen baitzuten. Lakunzakoen artean animoak eman eta lasatasuna eskatu zuten. Horrela, taldeko jokaldi batean lehenengo gola sartu zuten billabonatarrek. Baina jarraian jaso zuten hirugarrena. Villabonako nagusitzen hasi ziren eta hiruna egitea lortu zuten. Hala ere, azkenean Suisacoak lagunaren gola sartu zuten eta Lakunzakoei punturik gabe etxeratu ziren.

Fischer Zirkoa Albizturren

ERREDAKZIOA

Cirque Fischer Albizturren izango da etzi. Besteak beste, orekari, malabarista, animalia, eta pailazoz betetako ikuskizuna aurkeztuko dute. Ordu eta erdi inguru iraungo du emanaldiak, eta 17:00etan hasiko da. Duela hamaika urte sortu zuten Fischer familiakoek zirkoa. Frantzia, Belgika eta Euskal Herri-ekin dituzte birak. Duela egun gutxira arte Zaldibian egon dira, eta orain estreinakoz, Tolosaldera

datoz. Zirko familiarra da, txikia, bost lagunek egiten dute lan bertan, eta denak senideak dira.

Fischer zirkoan diharduen laugarren belaunaldia da oraingoa. Frantziatik datoz eta martxotik irailera bitartean Hego eta Ipar Euskal Herriko herri ugariara iristen dira. Fischer zirkoak kideek euren karpa gorria muntatu dute Albizturko plazan.

Euren kamioietan ez dago animalia arriskutsurik, batzuk inguru-

ruko baserrietan aurkitu ahal diren horietakoak dira. Txakurrak ahuntzak eta antzarrak izango baitira protagonista etzi, zirkoak beste artistekin batera. Hala, zer egin behar duten ondo erakutsitako ahate, ahuntz eta txakurrek egin dezaketena erakutsiko dute. Publiko guztientzako ikuskizuna da. Bi urtetik hasita adinekoetara bitartean edozeinek goza dezake Fischer zirkoaren ikuskizunarekin.

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoeraz hitz egiteko hitzaldia

Ibarra » Saioa gazteleraz izango da datorren asteartean, maiatzak 5, 17:00etan Uzturpe Ikastolako Areto Nagusian.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Uzturpe Ikastolak, Tolosako Udaleko Immigrazio sailaren laguntzarekin, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoerari buruzko hitzaldia antolatu du astearteko, maiatzak 5, 17:00etan ikastolako Areto Nagusian.

Saioa SOS Arrazakeriarako Anna Sternek eskainiko du gazteleraz eta bi ordu inguru iraungo du. Ikastolak esan duenez, «gurasoen iritziak oso garrantzitsuak dira gure seme-alabentzat eta horregatik gurasoek adierazi dituzten kezka eta galderei erantzuna» ematen saiatuko dira.

Eskolako Agenda 21eko emaitzen berri emango dute

Udalbatzak » Eskualdeko hamar herrietako udalbatzak hitz egingo dute Ekitate Gabeziaren inguruan.

ERREDAKZIOA

Eskolako Agenda 21 proiektuan murgilduta egon diren eskualdeko hamar herrietako ikasle eta irakasleek Udalbatzak egingo dituzte maiatzean zehar ikasleek Ekitate Gabeziaren inguruan ikasturtean zehar eginiko lanaren emaitzak erakutsi, beraien konpromisoak azaldu eta eskaerak egiteko.

Udalbatzak herri bakoitzaren udalbatzetan eta honako herri haueetan izango dira: Berastegin hilaren 5ean 10:00etan; Villabonan hilaren 6ean 09:30etan; Iruran hilaren 6ean 10:00etan; Tolosan hilaren 7ean 09:30etan; Berrobin hilaren 7an 10:00etan; Ikaztegi-tan hilaren 11ean 12:30etan; Zizurkilen hilaren 12ean 10:00etan; Anoetan hilaren 13ean 10:00etan; Ibarran hilaren 13ean 10:00etan; eta Bidegoianen hilaren 18ean 10:00etan.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zainketa.** Emakume euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. 665 720 426.



Ezkeretik eskubira Ibon Artola, moderatzaile lanetan aritu zen Sanblasatikoko gaztea, Egoitz Iturbe eta Mari Mujika. R. CALVO

Sanblasatikoko Gazte Asanbladak gonbidatuta Euskal Herria Sozialistako Ibon Artola, ELAko Egoitz Iturbe eta LABeko Mari Mujika izan ziren herenegun, Tolosako Kultur Etxean, krisiaren inguruan eztabaidatzeko.

Zein da gizartearen jabe?

REBEKA CALVO

Aurreikusita zegoen krisi baten aurrean al gaude?», hauixe izan zen asteazkenean Tolosako Sanblasatikoko Gazte Asanbladak antolatutako Maiatza Gorriaren barruan egingandako krisiaren inguruko mahai-ingurua hasteko egingandako galdera.

Mahaiaren bueltan hiru hizlari bildu ziren: Euskal Herria Sozialista aldizkariako Ibon Artola kidea, ELAko eskualdeko Egoitz Iturbe arduraduna eta LABeko eskualdeko Mari Mujika arduraduna.

Lehen galderaren erantzunean guztiak egin zuten bat, izan ere guztien iritziz lan arloaren erregulazio eza da nagusi, aberastasuna esku gutxiaren artean banatu dute, langileen lan baldintzak prekarizatu dira...

Langabeziaren gorakada

«Kapitalismoak ziklikoki hau egiten du eta krisiak argi utzi du hau dena kontrolatzen dutenek zein balore dituzten; langile eta gizartearen bizi-baldintzak ez zaizkie inport», esan zuen LABeko arduradunak. Mujikak, gainera, langabezia datuak eman zituen, «Estatuan 4.000.000 langabetu daude eta Euskal Herrian %10ko langabezia

dugu. Tolosaldeko INEMen iazko martxotik aurtengora langabetu kopurua igo da, orain 626 gehiago daude eta Goierri epe berdinean 793 gehiago».

ELAko arduradunak, ordea, azken urteetako irabazi «ikaragarriak» ez direla «erazuzenean» banatu esan zuen eta kontrol administratibo oso gutxi dagoela ere esan zuen. «Enpresariak oso agresibo daude eta helburu bakarra dute: lanaren erregulazio eza bultzatzea. Langileon errentak hartzen dituzte, gutxinaka jaisten doazen errentak, eta beraiek hartzen dituzte gai sozialetan inbertsiorik egin gabe», gaineratu zuen Iturbek.

Kapitalismoak ez zuela krisirik eragingo?

Ibon Artolak bere aldetik, hastanpenetara egin zuen salto, «Berlineko horma erori» eta kapitalismoaren indartzearen lehen urte haietara. «Euforia momentu haietan ekonomilari famatuak kapitalismoarekin krisirik ez zela egongo esan zuten, baina Marxek *Manifestu Komunistan* esan zuen orain dela 100 urte baino gehiago krisiak egongo zirela. Sistema kaotikoa da, ondasunak esku gutxi ba-

tzuetan geratzen dira eta horixe delako, gainera, sistemaren motorra. Gehiegizko ekoizpena bultzatzen du eta langileek ezin dute hori guztia kontsumitu», esan zuen Artolak.

Guztien ustez azken urteetan langileek jasandako prekaritateak orain ondorio latzak ekarri dituela: «Orain langabezian dauden asko nola iritsi dira egoera honetara? ez dira espedienteak egon, argi dago prekaritatean ari zirela langile horiei kontratuak bukatu eta inongo eskandalurik gabe joan direla kalera», esan zuen LABeko arduradunak. «Aurreko krisi garaian langileak hitzarmen finkoak zituzten baina lan eta gizarte-segurantzaren erretortzen ondorioz lan baldintzak prekarizatu dira eta orain ez gaude egoera berdinean», gaineratu zuen ELAko eskualdeko arduradunak.

Maiatzaren 21ean, denak kalera

Mahai-inguruko hiru hizlariak maiatzaren 21erako deituta Greba Orokorrean parte-hartzeko deia ere luzatu zuten, baina horren harira ikusleetako batek greba eginda zerbait aldatuko ote den galdetu zien.

Hizlariak oraindik ere baiezko borobila emateko modurik izan ez bazuten ere Greba Orokorra langileak «aktibatu, bildu eta borrokatzeko» modua dela utzi zuten agerian. «Gauza asko gure esku daude eta guk egin behar ditugu», esan zuen Iturbek.

LABek bere aldetik «erantzunik ematen ez badugu hurrengo erreferendum prekaritate areagotuko» dela esan zuen. Mujikak, era berean, «erabakitze eskubidea» aldarrikatu zuen, izan ere «lan harremanetarako esparrua berreskuratu behar dugu».

Ibon Artolak eskubide guztiak borrokatzen eskuratu dela gogoratu zuen eta galdera hauxe luzatu zuen: «Zein da gizartearen jabe?»

Azken urteetan bultzatutako prekaritateak oraingo kaleratzeak merketu ditu

Kapitalismoa edo langile klasea?», bere ustez Greba Orokorra aipatu galdera planteatzen du, gainera.


Bukatzeo etorkizunaren inguruan ere hitz egin zuten. Iturbek «aukera» bezala ikusten du, «langileak antolatzeo une aproposa da» eta. Mujikak ere «maila guztietan antolatzeo garaia» dela esan zuen eta baita «borrokatzeo» unea iritsi dela ere, «inork ez baitigu ezer emango».

Artolak Hego Ameriketako «iraultzak» Europa ere iristen ari direla esan zuen eta bere apustua kapitalismoa desagertaraztea dela esan zuen: «Gizarte eredu aldatu behar dugu eta gizarte sozialista eraiki».



22 auzipetuei elkartasuna agertuz

TOLOSA » Asteazkenean Udalbiltzaren aurkako erasoaren seigarren urteurrena bete zen eta data gogoratzeko hainbat herritarrek elkarretaraztea egin zuten Tolosako udalbatzaren aurrean. Operaziozko urteak igaror badira ere oraindik ez dute epaiketarik egin eta 22 auzipetuek euren aurkako 10 eta 23 urte arteko espetxe zigor eskaerak dituzte. R. CALVO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Amazabal Institutuko hainbat ikasle grebara irten da

Leitza » Ikasle Abertzaleak antolakundeak Euskal Herri osoko ikasleak grebara deitu zituen atzo Euskal Eskola Nazionalaren alde.

ASIER IMAZ

Txirrinarekin batera, 10:15ean, Amazabal Institututik ikasleak kalera irteten hasi ziren atzo. Patioan *Hezkuntza sistema arrotzen gaitetik, ikasleria eraiki!* jartzen zuen pankarta zabaldu zuten. Hamabost minutuz ikastetxe atarian egon ondoren, elkarretaratzea manifestazio bilakatu zen. Trikitilariak aurretik zirela herri guztia zeharkatu zuten leitza 50 ikasle inguruk. Ibilbidean hainbat herritar euri begira gelditu ziren, manifestazioaren zergatia jakin nahian bezala.

Greba zergatik?

Ikasle Abertzaleak antolakundeak grebara deitu zituen atzo Euskal Herriko ikasleak. Leitza IAK Amazabalen zabaldu zuen deialdia eta ondorioz hainbat ikasle kalera irten ziren.

Elkarretaratzea eta manifestazioaren ondoren Leitza plaza bi taldetan banatu ziren ikasleak. Batzuk jolas egin zuten eta besteek berriz ondoren udaletxetik zintzilikatu zuten pankarta. Bertan ondorengo jartzea adostu zuten: *Gure Hezkuntza Sistema propioaren alde! Eskubide demokratikoen alde! Hezkuntza hezikidetzailerik! Euskal Eskola Nazionala!*

Aldarrikapen ikur honek greba deialdiaren zergatiak laburbildu zituen, izan ere, udaletxetik pankarta zintzilikatu ondoren, IAKo kide batek ikastetxetik kalera irten ziren kideei *Hezkuntza Sistema*

Arrotzen gaitetik, ikasleria eraikitza! leloa zuen idatzia irakurri zien. Hona hemen pasarte batzuk: «Ez dira gutxi ikasleok egunez egun ikastetxe eta unibertsitateetan gaingaitu beharreko oztopoak, Hezkuntza Sistema Arrotzak inposatzen zaizkigu, sistema kapitalaren eta patriarkaren beharrei erantzuten dien hezkuntza sistema frantziarra eta espainiarra inposatzen zaigu. (...) Euskal ikasleok ez dugu espainol edo frantses sumiso, alienatu, akritiko eta infantilizatu egin nahi gaituen Hezkuntza Sistema hau onartzen! Euskaldunak kritikoak, parekideak eta iraultzaileak izan nahi dugu,

IA: «Ikasle euskaldunok kritikoak, parekideak eta iraultzaileak izan nahi dugu»

eta horretarako hori ahalbidetzen duen hezkuntza sistema bat eraiki behar dugu. (...) Denon lana eta konpromisoa ezinbestekoa da gaur ametsa dena bihar errealitate izateko, tantaz tanta Hezkuntza Sistema Arrotzak borrokatu eta Euskal Eskola Nazionala eraikiko duen ikasle uholdea sortzeko. Konpromiso horren adibide gara gaur Euskal Herri osoan bildu garen ikasle guztiak».



Ikasle-grebaren aldarrikapenak udaletxean zintzilikatu zituzten. A. IMAZ



Edurne Pasaban eta Asier Izagirre iritsi dira 3. kanpamendura

Tolosa » Egokitze lanak amaitu ondoren saiatuko dira Kangchenjunga igotzen, maiatzaren erdialdean.

rretan dabilta. Gasteizko Udalak, babesleetak batek, jakinarazi duenez, mendizaleak 7.200 metrora dagoen 3. kanpamenduan egon ondoren berririo oinarritzko kanpamenduan aurkitzen dira.

A. IMAZ

Edurne Pasaban eta Asier Izagirre Nepalen aurkitzen dira Kangchenjunga (8.598m) mendia igotzeko asmoz.

Horrelako mendizarrak igotzeko, mendizaleak altuerara egokitu behar izaten du lehenik. Une honetan bi tolosarrak lan ho-

Igoera hilabete honetan

Behin egokitze lana amaitu ondoren Kangchenjunga mendia igotzen saiatuko dira espedizikideak.

Maiatzaren erdialdean abiatuko omen dira Edurne Pasabanen hamabigarren zortzimilakoa izango litzatekeen Kangchenjunga tontorrera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoeta/leitz@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibarra/leitz@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.


Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialdea, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia 

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Festak

- **Larraitz.** Larre Irekiera Larraitz-en: 10:00etan azoka, Arkupe dantza taldea eta trikitilariak, 11:00etan ermitan meza, 11:30ean artzain txakurren erakusketa, 12etan *Harrespila* eskulturaren inaugurazioa, jarraian etxafuegoa larreen irekiera iragarritz, ondoren jaialdia. Antolatzailea: Enirio-Aralar Mankomunitatea.
- **Orexa.** Santa Kruz jaiak: Patxin eta Potxin pailazoak 16:30ean, ondoren merienda, 19:00etan auzoen artean apustua (korrikalaria eta txirindularia), 21:00etan sardina jatea eta ondoren erromeria Astiazaran anaiak eta Leirerekin.
- **Tolosa.** Gipuzkoa Encounter III informatika zaleen bilkura Usabal kiroldegian.

Musika

- **Tolosa.** Maiatza Gorria: Otsabi elkartean 18:30ean Peachy Joke eta talde gonbidatuaren kontzertua. Antolatzailea: Sanblaspiko Gazte Asanblada.

Deialdiak

- **Tolosa.** Ligi-Santa Engrazi mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak antolatu du hilaren 10erako, Izarbe mendia igoz. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5, 943 652789, alpinouzturre@hotmail.com)
- **Ibarra.** Maiatzaren 8an Izaskunen erromeria antolatu du Bizi Nahi jubilatuek elkartean. 09:30ean oinez abiatuko dira, 11:30ean toka gizonentzat, 12:00etan autobusa (izen-ematea elkartean), 12:15ean toka emakumeentzat, 13:00etan meza, 14:00etan bazkaria, omenaldia, Los Rubi-rekin dantzaldia.
- **Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeak maiatzaren 10ean ospatuko den Herri Urratsera joateko autobusak antolatu ditu. Izena emateko egoitzara gerturatu behar da.

Zinema

- **Tolosa.** *El truco del manco* filma emango dute Leidor aretoan 19:30ean eta 22:30ean.
- **Tolosa.** *Monstruos contra alienigenas* filma emango dute Leidor aretoan, 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Zorionak Piru!

(Gauetan pamela). Ene begiak zure kurba lirainetan pausatu nituenetik txorata naukazu. Zure futbolista.



Zorionak Lohitzun!

Gaur 2 urte. Amezketa ko atton-amonak.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

Ibarra - maiatzak 7, 8, 9 eta 10

18:00TARTE ZABALIK

IBARRA

VI. Garagarda festa

Langela 3 karpemusika jakitipikoak kulturekitaldiak
20 garagardomota 5 kalimotxo aukerarik kontzertuak

LAGUNTZAILE hitza

Nerbioi Ibaian Gora

Nerbioi Ibaian Gora DVDa

Maiatzak 9, larunbata berriarekin zure kioskoan

berria + 3,40 €

aukera ezazu. BIZI EUSKARAZ berria

bbk =

OR XE

TOLOSALDEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK

BATAILERGOKO IRAKASLEEN ENKANTZA ORGA

ONXE

Batxilergoak

BATXILERGOAK

Zientziak eta Teknologia

Giza eta Gizarte Zientziak

943 65 13 87

E-mail: 012983a@rockhitza.net www.ariaa.net

Auzoetakoak: Batailergoak, Iruñekoak, 406-834

berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak hautatzeko probarako deialdia

PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

Eguna: maiatzaren 5a.
Tokia: Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkea.
Ordua: arratsaldeko laurretan.

BIZKAIAN

Eguna: maiatzaren 5a.
Tokia: Leioako campuseko eraikin nagusian, 1. gelan.
Ordua: eguerdiko ordu batean.

ARABAN

Eguna: maiatzaren 6a.
Tokia: BERRIAREN Gasteizko egoitzan, Bizenta Mogel 6, behea.
Ordua: goizeko bederatzita eta erdietan.

NAFARROAN

Eguna: maiatzaren 5a.
Tokia: BERRIAREN Iruñeko egoitzan, Irtaxeko monasterioa 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerre.
Ordua: goizeko hamarretan.

Probara curriculuma eraman behar da